

<b>Berdintasun Zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Eguna: 2015-11-05 Lekua: Santa Klararen Jauregia 17:00 – 19:00

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbistazu

Gizatiar: Marisa Pedrero, Begoña Fernández

Mujeres con Voz: Luciana Davies

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Roda: Clara Lorenzo

Bildu: Maite Arraiza

Ciudadanos-Herriarrak: Jesús Ibarreche

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Paula Nieva

Udal Talde Sozialista: Josefina García

Talde Popularra: Susana de Cos Yañez

ELA: Elvira Lemona

Berritzegune: Ana Sofía Gutierrez Arnaiz

Kontseiluburua: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

**Ez dira bertaratu:**

**Aztergai-zerrenda**

- 2015-2018 legegintzaldirako izendapen berriak
- Azaroaren 25a:Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna
- Informazio orokorra
- Galde-eskeak

## **2015-2018 legegintzaldirako izendapen berriak**

Berdintasun zinegotziak jakinarazi du, bileraren hasieran, ohikoa dela alkatea Kontseiluaren aurreneko saiora etortzea, baina oraingoan ezin duela, kontziliazio kontu batengatik, eta hurrengora etorriko dela.

Gehitu du Kontseiluak hainbat aldaketa izan dituela: talde politiko berriak daudenez, parte-hartzaileak gehiago dira; elkarteak, berriz, aurreko legegintzaldikoak dira, bat izan ezik (aurreko legegintzaldian parte hartu zuen, baina oraingoan ez da egongo); Berritzegunek parte hartzean, heziketaren arloak ordezkari berria du; eta, azkenik, Getxo Enpresak (enpresaren arloa ordezkatzeko) ez du parte hartuko gauden legegintzaldi honetan. Era berean, beste aldaketa baten berri eman du: orain arte, bilera zehatzen batean izan ezik, emakumeek eratuta zegoen Kontseilua; hemendik aurrera, ordea, Ciudadanos-Herritarrak alderdiak gizonen ordezkari bat izendatu duenez, haiek parte hartuko dute. Horrenbestez, ongiatorria egin die modu berean.

## **Azaroaren 25a: Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna**

Berdintasun zinegotziak azaldu du, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna hurbil dagoenez, Berdintasun Zerbitzuak prest dituela zenbait jardura. Izan ere, emakumeen elkarteek euren agenda badute ere, Udalak interesgarri jotzen du zenbait ekitaldi bultzatzea. Alde batetik, erakunde adierazpena dago, Bozera maileen Batzordeak onartu ohi duena, baina aurten, azaroaren 25ean bertan izango denez osoko bilkura, zuzenean eramango da hara. Erantsi du testua Berdinsareatik etortzen dela eta Kontseiluak aztertu egiten duela. Beste alde batetik, puntu lilak jarriko dira ohiko udal eraikinetan, eta HABetan utziko dira puntu lilak, interesa dutenek hartzeko. Horrez gain, zenbait jolas edo aisia jardura antolatu dira.

Berdintasun teknikariak aurreikusitako jardueren gaineko informazioa eman du:

- *Ez gara Palestinaz ari*: maskulinitateari buruzko gogoeta, antzerki, bertso, musika eta poesia formatuan, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan antolatua.
- *Género, juego de máscaras. Habitar el cuerpo*: emakume eta gizonentzako tailerra, jokoaren bidez generoen rola zalantzan jartzeko bidea emango duena.
- La máquina del dueño: indarkeriari buruzko antzezlan.

Halaber, elkarteek prestatutako jardura batzuk aipatu ditu, agendaren barnean sartuko direnak:

- *El camino Belinda*, Mujeres con Voz elkarteak antolatutako antzerki-foruma.

- Bizkaia Zubiko plazako puntu lilan elkarretaratzea egitea eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko mintzaldia, Gizatiar elkarteak antolatutakoak.

Mintzaldia: Berdintasun zinegotziak galdetu du ea beharrezko jotzen den mintzaldia egitea. Izan ere, ekitaldi asko dagoen arren, uste du Berdintasun Zerbitzuak sentsibilizazio mintzaldi bat eskaini beharko lukeela. 23rako aurreikusita dago, baina edukia erabaki gabe, Kontseilura ekartzeko.

Ciudadanos-Herritarrak alderdiak proposatu du mikromatxismoei buruz hitz egitea, gutxi lantzen den gaia baita. Erantzun zaio orain dela pare bat urte maskulinitateari eta indarkeriari buruzko mahai-ingurua egin zutela gai horretan aditu den batek eta gizon talde batek. Jolas edo aisia jardueretako bat ere maskulinitateari buruzkoa da.

Bilgune Feministak proposamen bat ekarri du bere izenean eta Mujeres con Voz elkartearenean: indarkeriari buruzko mintzaldi bat egitea, etxeko enpleguaren prekaritatearekin lotutakoa. Lan horrek ahulezia handia eragiten du, egiturazko indarkeriarekin lotutakoa. Mujeres con Voz elkarteak Verónicaren kasua azaldu du. 28 urteko neska bat zen, jatorriz Nikaraguakoa, eta bihotzekoak emanda hil zen lantokian. Hiru urtez bizi izan zen Getxon, eta ondoren Deriora joan zen, etxebizitza batean barneko lanak egitera. Hala ere, harreman-sarea Getxon izaten jarraitu zuen. Zehaztu duenez, erregulatu gabeko lana zen, Verónicak ez zuen baimenik medikuarengana joateko eta familiak arropak itzuli zituen, sorterriratzearen gaineko erantzukizunik hartu gabe. Neska honek senitartekoak eta alaba bat zituen Nikaraguan, eta gorpua hara bidaltzea lortu dute, herritarren ahaleginari esker: zozketa baterako txartelak saldu ziren eta diru emaitzak jaso ziren Bilbon (5.000 euro) eta Nikaraguan (2.000 euro). Babesgabetasun egoera salatu du eta gehitu dute, nahiz eta Bilbon egoera salatzeko ekintzak egin diren, Getxon oraindik ez dela ezer egin. Garrantzitsutzat jotzen du gai hau Getxon aldarrikatzea, berriro gerta ez dadin.

Berdintasun zinegotziak ulertzen du egoera hunkigarri eta gogorra dela, baina, bere ustez, azaroaren 25a genero indarkeriaz hitz egiteko da eta orokorrakoak diren gaiak martxoaren 8an landu behar dira. Zinegotziaren iritziz, genero indarkeriak jendea hiltzen jarraitzen du, gehiago ari zaie eragiten gazteei eta garrantzizkoa da hori lantzea, ez kasu jakin bat.

Bilgune Feministaren ustez, lan mota horretan ere indarkeria gertatzen da, ez bikotekideek eragindakoa, baizik eta enplegatzaileek eragindakoa, eta inpunitate osoz gertatzen da. PSE alderdiaren ustez, bihotzekoa izan bazuen, hori ez da indarkeria. Rodak gogora ekarri du gizonezkoak ere esplotatzen direla etxeko enpleguan. Eskuz-Eskuk gogorarazi du etxebizitzaren esparruan gertatzen den sexu

indarkeria ez dela berria eta "jauntxoaren" indarkeria aipatu du. Berdintasun zinegotziaren iritziz, indarkeria fisikoa edo psikologikoa existitzen da, eta morrontza eta giza duintasun txikiko lan harremanak, irregulartasuna... beste arlo batekoak dira, ez emakumeenganako indarkeriaren arlokoak.

Lehendik Kontseiluan parte hartu ez duten pertsonek gaiei buruz egindako hainbat proposamen daude (indarkeria psikologikoa, jolas edo aisia jardueretako indarkeria, zer egin indarkeria gertatzen bada, edo heziketaren arlokoa), azaldu den moduan, beste batzuetan landu direnak.

Berdintasun teknikariak jakinarazi du Emeki aldizkarian, zenbaki honetan, landu duten gaia dibertsitate funtzionala duten emakumeenganako indarkeria dela eta hori beste aukera bat litzatekeela.

Zein gai aukeratu eztabaidatu ondotik, hizketaldiaren helburua eta zein hartzaile izan behar dituen zehaztu behar denez –eta kontuan hartuta berandu gabiltzala–, erabaki da gehien proposatu diren hiru gaien gaineko txostengileak bilatzeko ordena bat zehaztea eta haiek libre egotearen arabera erabakitzea:

- lanaren esparrua,
- indarkeria fisikoa eta psikologikoa,
- ahalmen urritasuna.

Erakunde adierazpena: Mujeres con Voz elkarteak postaz bidali dituen aldaketa proposamenak onartzea erabaki da; eta, hartara, indarkeria ekonomikoa eta jatorrizko lekua testuan sartu dira.

GUK taldeak proposatu du azken paragrafoan indarkeria matxistak gaitzesteko hitz batzuk idaztea, baina esan da gaitzespen hitz horiek testuaren hasieran daudela eta, beraz, azkenean, erabaki da ez dela beharrezkoa errepikatzea.

### **Informazio nagusia**

- Jaietako kanpainak. Berdintasun zinegotziak azken urte hauetan egiten ari diren jaietako kanpainei buruzko informazioa eman du, eta, zehatzago, 2015ekoari buruz ("*Eraso sexistei tapoi bat jarri!*"). Lehenbizi, kontatu du zein izan den kanpaina, eta, ondoren, enpresak berak egin duen ebaluazioaren berri eman du.

Udalerriko jai nagusietan, tapoien bilketa sinbolikoa egin da, txosnen eta tabernen laguntzarekin, eta *clown* bikote batek kalea dinamizatu eta laguntzera animatu du. Kanpaina gauzatu duen enpresaren arabera, jai batzuetan eta besteetan emaitza nahiko desberdina izan da, eta, batez ere, hasieran, kanpaina ezezaguna zenean. Enpresaren ustez, ez da beti asmatu kanpaina egiteko tokiarekin, dinamizazio orduen kopurua ez da nahikoa izan, ez da lortu jendeak parte hartzea alderantzizko grafitian eta ez da ulertu, taberna askotan ez da egon aurretik harremanak izan

zituen pertsona... Beraz, azalpenak eman behar izan dira berriz, eta laguntza eskatu. Nolanahi ere, Romoko, Mesedeetako eta, batik bat, Portu Zaharreko jaietan jendea gehiago inplikatu dela ikusi da. Guztira, 11 kilogramo tapoi bildu dira. Hala ere, nabarmendu nahi izan da, gutxi bada ere, ekintza sinbolikoa zela.

- III. Berdintasun Planaren ebaluazioa eta plan berria. Berdintasun zinegotziak esan du III. Planaren ebaluazioaren ondoren, diagnostikoa eta plan berria enkantean hartzeko eskaintzeko fasean daudela eta parte-hartzean oinarritutako metodologia izango dutela. Bien bitartean, aurreko plana dago indarrean, eta, horrenbestez, jasotzen dituen ekintzak lantzen jarraitzen dute.

### **Galde-eskeak**

Bilgune Feminista elkarteko ordezkariak jaietako erasoen eta eman zitzaien erantzunaren gaia jarri du mahai gainean. Esan du, Portu Zaharrean izan zen bigarren erasoaren ondoren, pentsatu zutela manifestazio baterako deia egiteko unea zela. Gehitu du, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, nahiz eta bazekien astelehenerako deialdi bat zegoela, hurrengo egunerako egin zuela deia. Horren haritik bi galdera hauek egin ditu: Nola jakin dezakegu guk benetan salaketarik izan den edo ez? Elkarrekin erantzun behar diegu halako gertakariei? Aurreneko galderari dagokionez, kontatu du, erasoari buruzko mezuak iristen hasi zirenean, berak deitu zuela Berdintasun Zerbitzura, jakiteko ea egia zen eraso baten salaketa izan zela.

Berdintasun zinegotziak erantzun du kasu bakoitzean nola jokatu modu astitsuan erabakitzeke premia ikusten duela. Galdetu du zergatik jardun behar den bakarrik sexu indarkeriaren aurrean, ea ez den ezer egin behar jakina denean tratu txarren kasu bat izan dela. Era berean, planteatu du zer gertatzen den biktima den emakumeak ez badu salatu nahi. Jakinarazi du Bozeramaileen Batzorderako deia egiten dela salaketa dagoenean eta aintzat hartu beharreko beste irizpide bat dela hurrengo egunerako deia egitearena, eta hala egin zen. Uste du gogoeta egin behar dela, herritarrak noiz mugiarazi behar diren eta noiz ez hausnartzeko.